



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016-11-15

BILERA ZENBAKIA:35

ORDUA ETA LEKUA: 19:30etan Itsa sondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Sei neska eta mutil bat

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

BERDINTASUNA

Eskolatik irakasle bat etorri da eta Emagin taldeak bideratutako berdintasun tailerraren inguruko balorazioa azaldu digu. Tailerrean haurrak oso gustora egon ziren eta irakasleek oso positibotzat baloratu dute ekimena. Emagin txoste naren balorazioa elkarrekin landuko dugu (udala eta eskola) eta bertatik herrian eta haurrekin berdintasuna lantzen jarraitzeko erabakiak hartuko dira. Atera diren datuak ikusita, gaia lantzen jarraitzea ezinbestekoa da. Udaletik aipatu diogu, hilaren 22an tailerra antolatu dela guraso, tutore edo zaintzaileekin eta bertan haurrekin landutakoa helduekin landuko da.

AURREKO AKTAKO ETXEKO LANAK

Etxeko lanen erreposoa egin dugu eta ez dago aipatzekorik. Lanak burutu dira.

HARRERA PLANEA

Gaur arratsaldeko 18tatik 19.30etara harrera planaren barruko lehen saio informatiboa burutu da herrian. Bertara 4 herritar etorri berri azaldu dira. Informazioa eskaintzeko berriz ongizate lantaldeko kideak, eskolako irakaslea, euskara taldeko kidea eta herritar bat azaldu dira.

Saio informatiboan, prestatutako gida liburuxka banatu zaie eta udalean eta herrian dauden baliabideen berri, baita funtzionamentuaren berri ere eman zaie. Ondoren herrian zehar buelta bat eman dugu udaletxeko eraikina erakutsi, instalazioak ikusi, tabernak, denda, mediku etxea eta farmazia, eskola eta haur eskola, gaztetxea e.a bisitatu ditugu.

Saioaren balorazioa oso positiboa izan da. Hobetzeko puntuak partehartzea handitzea batetik (27 eskutitz bidali dira eta 29 pertsoneri jakinarazi zaie eta 4 pertsona etorri dira) eta saioaren amaiera goxatzea bestetik (amaitzeko zerbait



janez mahai inguruan biltzeko aukera aipatzen dugu).

Partehartzaileei euren balorazioa galdetzean positiboa izan dela eta eskertu dutela aipatzen dute. Herrian zehar buelta egun argiz egitea proposatzen du hauetako batek, argitasunean jendearekin topo egin eta hauek ikusi ahal izateko.

2017ko lehen saio informatiboa ekainaren 6an izango da, arratsaldeko seietan.

AZAROAK 25: Emakumeen aurkako indarkeriari EZ esateko eguna

Azaroaren 25ean elkarretaratzea egingo da arratsaldeko 18tan herriko plazan. Ondoren bideo emanaldi laburra antolatuko da eta azkenik txokolate jana plazan.

Honekin lotuz Azaroaren 22an, Berdintasun tailerra antolatu dugu Emagin taldeak bideratuta. Tailerra arratsaldeko 18tatik 19:30etara izango da eta herritarrak bertan parte hartzeko beharra azpimarratu da. Horretarako kartelak jarriko dira, washapez mezuak bidali eta herriko paneletan infomazioa argitaratu. Eskolara ere, oharra bidali dugu haurren gurasoei banatzeko.

LANBIDE ETA LANGABETUAK

Lanbidetik hilabetero datuak bidaltzen dituzte, herriko langabetuen inguruan. Datu hauekin herriko diagnostikoa egitekotan geratu gara eta diagnostiko honen arabera, ongizate lantaldetik udalak hartu beharreko neurrien inguruan arituko gara.

Ezin ditugu ahaztu, lanerako baimenik ez eta lanbideko zerrendatik kanpo geratzen diren herritarrak. Haukin landu daitezkeen aukerak ere mahai gainean jarriko dira.

Lan ildoak/ideiak : enpresekin akordioak, formakuntza eskaintza herrian, orientazioa, udalean sortu edo antolatu lan taldeak e.a.

Gaia sakonago urtarriletik aurrera lantzekotan geratu gara.

2017KO AURREKONTUAK

Eskuhartze familiarra: 16.000 euro (gutxienez bi familien eskuhartzea ahalbidetuko duen aurrekontua da).

Berdintasuna: 4000 euro. Azken bileran 2000 euroko aurrekontuaz hitz egin zen baina gaiaren garrantzia ikusita eta egin diren dinamiketarik jasotako balorazio positiboa kontutan izanda, 2017 urtean ekintza gehiago antolatu ahal izateko 4000 euroko aurrekontua eskatuko da. Berdinbidean egitasmoan parte hartzea



aurreikusten da (Gipuzkoako Foru Aldundiko Programa), Emagin taldearekin tailerrak antolatzen jarraitzea positibotzat baloratzen da, autodefentsa ikastaroa berriro antolatzea eta hurrekin eta gurasoekin lanean jarraitzea.

Gizarte Larrialdiak: 3000 euroko laguntza mantentzea 2016an bezela.

Errefuxiatuen gaia eta desfibriladorearen erabilera lantzeko aurrekontu zehatza dugunean aurkeztuko dugu udalean 2017rako.

ERREFUXIATUAK

Batetik errifak saltzen dira urtero Itsasondon eta aurten, bertatik ateratzen den dirua Errefuxiatuen alde lan egiteko erabiliko da.

Otsailaren 4ean mural erraldoiak herrian zehar jarriko dira auzolanean, gero hamaiketakoa egingo da eta muralaren egilea den argazkilariak, muralen inguruko informazioa eskeiniko die herritarrei. Muralak herriko bost puntu ezberdinetan jarriko dira. Otsailaren 6tik 12rako astean, eskolan errefuxiatuen gaia landuko dute hurrekin eta herrian dokumentala jarriko da. Dokumentalean banderolak zozketatuko dira.

Ekainaren 20an errefuxiatuen eguna da eta honen arira, ekainaren 17an material eta/edo diru bilketa egingo da herrian, paella erraldoi baten bueltan. Herritarrei dokumentalean zozketatuko banderolak balkoietan jartzeko gonbitea egingo zaie.


ELEKTRIZITATEA NEURTZEKO APARATUA

Urte haseran aipatu zen eran, berriro eskaintzen zaie herritarrei elektrizitatearen kontsumoa neurtzeko aparatua eta honekin euren kontratua aldatzeko aukera. Ongizate lantaldetik aukera hau zabalduko da eta gizarte langileak ere erabiltzaileei jakinaraziko die.

KZ GUNEA ETA IMPRESORA

Impresora erabilgarri dago kz guneko irakaslea etortzen den egunetan soilik eta honek zerbitzua hilabetean bitan ematea bakarrik mugatzen du. Honen arira, gaia udalean lantzeko eskaria egiten da eta zerbitzua egunerokoan eskaintzeko aukerak aztertzea: txanpona duen impresora jarri adibidez, kz gunekoekin hitz egin e.a.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?



HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, 2017ko Urtarrilaren....-an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- 2017 urteko plangintza eta helburuak zehaztu.
- Lanbide eta Langabetuak diagnostikoa eta lan ildoak zehaztu.